

DONOSTIAKO ETA GIPUZKOAKO TURISMO ESTRATEGIA FORU ALDUNDIAREKIN ELKARLANEAN EGITEARI BURUZKO MOZIO ARRUNTA

Udalbatzaren Araudi Organikoko 98. artikuluekin bat, EH BILDU udal taldeko bozeramaile Amaia Almirall Lopez de Luzuriagak jarraian adierazten den MOZIO ARRUNTA aurkeztu du.

JUSTIFIKAZIOA

Argi dago turismoaren hazkundeak estrategia egokitzea eskatzen duela Donostian ezezik Gipuzkoa osoan ere. Mota guztietako errekorrak eta markak gaintitzen ari diren honetan, mahai gainean plangintza berriak jartzeko momentua iritsi dela nabarmena da. Izan ere, hiritarrentzat, sektorearentzat berarentzat eta turistentzat ere zenbait eremutan gertatzen ari den masifikazioa kezka iturri bihurtzen ari da; masifikazio hori kalitatearen kontra doalako eta horrek sektorearen iraunkortasuna bera edota orain arte izan dugun eredia kinka larrian jar ditzakeelako. Hori begien bistakoa da Donostian, baita Gipuzkoako kostaldeko beste herri batzuetan ere.

Egia da, bestalde, Gipuzkoako beste udalerrri batzuen errealitatea zeharo bestelakoa dela, urrun daudela masifikazioaren arriskutik eta, are gehiago, haien ekonomia suspertzeko aukeren artean txertatzen dutela turismoa.

Hortaz, tokian tokiko errealitateari eraginkortasunez erantzungo badiogu, eta Donostiaren kasuan, masifikazioaren arriskua saihestuko badugu, behar-beharrezkoa da, aldi berean, Gipuzkoan deszentralizazio eta elkarlan politikak garatzea. Eredu iraunkor bat sustatu nahi badugu, erakundeek soluzio egokiak adostu behar dituzte turistifikazioari beldur dioten udalerrientzat zein, alor honen garapen txikia dutelako, turismoa bultzatu nahi dutenentzat. Eta horretarako, ezinbestekoa da talkak alde batera uztea eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zein udalek akordioak eta sinergiak bilatzea eta estrategiak adostea. Askok baitugu jokoan: gure herritarren bizi kalitatea eta sektore beraren iraunkortasuna.

Hori dela-eta, hauxe da EH Bildu udal taldeak aurkeztutako

MOZIO ARRUNTA

EH Bildu talde politikoa
Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
eh_bildu@donostia.eus - Tel.
943481027 -

1. Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari turismo plangintza bat diseina dezala, udalekin batera eta haiekin adostasuna bilatuta, lurraldean eredu iraunkor bat garatzea ahalbidetuko duena eta Donostiaren zein gainerako udalerrien tokian tokiko errealitateari erantzungo diona.

Donostian, 2017ko ekainaren 9an

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga

EHBildu udaltaldeko bozeramailea